

IRAKASKUNTZA-GIDA

2020/21

Ikastegia

231 - Psikologia Fakultatea

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa

4. maila

IRAKASGAIA

25104 - Gradu-amaierako lana

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Gradu Amaierako Lana (GRAL) ikasleak nahitaez egin beharrekoa da: 6 kreditu ditu eta ikasturtearen bigarren lauhilekoan egin behar da. Lanaren helburua da ikasketetan lortutako gaitasunak erakustea. Dokumentu idatzia da, baina ahoz azaldu beharko da epaimahaiaren aurrean eta hark zehaztuko du kalifikazioa.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Gaitasunaren
Zk.: Gaitasunak

- 1 Psikologiaren eredu teorikoak ezagutzea hautatutako gaien, eta haren ekarpenak eta mugak kritikoki balioesteko gai izatea.
- 2 Gizakiaren substratu psikologikoa osatzen duten elementuak identifikatzeko eta sartzeko gai izatea.
- 3 Ebaluazioa egiteko datu garrantzitsuak neurtzeko eta lortzeko gai izatea, datu kuantitatiboak edota kualitatiboak aztertzeko gai izatea, eta landutako gaiaren emaitzak interpretatzeko eta txosten tekniko bat egiteko gai izatea, ahoz edota idatziz aurkezteko.
- 4 Ikergaiaren testuinguruan agertzen diren banakako, taldeko eta taldeen arteko aldeak, arazoak eta beharrak identifikatzeko gai izatea.
- 5 Landutako gaiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertzeo eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.
- 6 Psikologoaren jarduera profesionala arautzen duen lege-esparrua ezagutzea eta printzipio etikoak eta deontologia-kodea aplikatzeko gai izatea.
- 7 Psikologiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, aztertzeo eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio- iturrietatik abiatuta.
- 8 Maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan modu eraginkorrean erlazionatzea eta komunikatzea, eta banaka nahiz diziplina bakarreko zein anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea, ardurak hartuz eta jarduerak modu kritikoan baloratuz.
- 9 Modu autonomoan ikasteko eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzia baloratzeko gai izatea, lanbidearen mesederako diren gaitasunak eta ezagutzak eguneratzeko, eta ezagutza psikologikoari ekarpena egiteko.

Irakaskuntza emaitzak jarraian agertzen diren errubriken arabera neurtuko dira:

1. Helburuak ezartzen ditu, lana planifikatzen du eta denboran zehar modu egokian gauzatzen du.
2. Informazio-iturri espezializatuetatik informazio egokia bilatzeko, lortzeko eta aukeratzeko gai da.
3. Lanak dituen elementuak era ordenatuan aurkezten ditu, ideiak argitasunez adieraziz, eta testua irakurri eta ulertzea ahalbideratzen duen hizkera erabiliz.
4. Lanak aztergai duen objektua argitasunez identifikatu, definitu eta dagokion testuinguruan jartzen du, graduko prestakuntzan lortutako elementuak erabiliz eta betiere psikologiako jakintza arlo desberdinetatik eginda.
5. Metodologia egokia erabiltzen du proposatutako helburuei begira, eta zuzen aurkezten ditu emaitzak.
6. Balorazio kritikoa egiten du aurkeztutako ereduaren gainean, baita egindako jardueren edota lanean lortutako emaitzen gainean ere, eta ideia orijinalak, praktikoak eta berritzaileak proposatzen ditu.

Posterraren prestakuntzaren errubrika:

1. Posterra egoki eta egituratuta aurkezten da, GrALaren elementu nagusiak jasoz.
2. Egokiak izan eta lana ongi ulertzea ahalbideratzen duten grafikoak erabili dira.
3. Konklusioak alderdi nagusiak jasotzen ditu.
4. Aurkezpena originala eta sortzailea da.

Aurkezpenaren eta defentsaren ebaluazio errubrika:

1. Lanak dituen elementuak era ordenatuan aurkezten ditu, ideiak argi eta garbi adieraziz, eta hizkera egokia erabiliz.
2. Ondo laburtzen du informazio garrantzitsuena, lanaren azalpena ezarritako denborara egokituz.
3. Ongi ulertu eta modu egokian erantzuten die epaimahaiaren galderari

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Lana bi modutakoa izan daiteke:

1. Practicumarekin erlazionatutako lan bat.
2. Sailek eskaintako gai-zerrendatik abiatuta egindako lana, Practicumarekin zerikusirik ez duena.

Gradu-amaierako lanaren motak:

- Practicumean egindako jardueren eta erabilitako tekniken oinarritze teoriko eta metodologikoa.
- Practicumean egindako jardueren balorazio kritikoa, hobekuntzen proposamena edota landutako gaien esku hartzeko programa baten diseinua.
- Ekintzaitza-proiektu bat.
- Ikerkuntza, Garapen edota Berrikuntza Proiektua.
- Gai jakin baten berrikuspena eta eguneratze teorikoa edota metodologikoa.

METODOLOGIA

- Gradu Amaierako Lanaren txostenak 15-20 orrialde izango ditu gehienez (azala, laburpena eta erreferentziak barne) eta horiez gain, beharrezko diren eranskinak (taulak, grafikoak eta abar).
- DIN A4 formatuan idatziko da, 2,5 cm-ko marjinekin eta 1,5eko lerro-tarteekin, eta letraren tamaina 12koa izango da. Ahal izanez gero, alde bietatik inprimatuko da.
- Gradu Amaierako Lanaren txostenak 15-20 orrialde izango ditu gehienez (azala, laburpena eta erreferentziak barne) eta horiez gain, beharrezko diren eranskinak (taulak, grafikoak eta abar).
- DIN A4 formatuan idatziko da, 2,5 cm-ko marjinekin eta 1,5eko lerro-tarteekin, eta letraren tamaina 12koa izango da. Ahal izanez gero, alde bietatik inprimatuko da.
- Lehen orrialdean, lanaren izenburua, ikaslearen izen-deiturak eta irakasle tutorearen izen-deiturak idatziko dira. Aurkibideak lanaren atal guztiak jasoko ditu, baita irudi eta taula guztiak ere. Lehendabizi, laburpen bat egingo da, 200 hitzekoa gehien jota, eta lana garatuko da ondoren, kontuan izanik jarraian modalitate bakoitzerako aipatzen diren atalak: Modalitateak: Ikusi Fakultateko web orria (GRALeko Gida):
- <https://www.ehu.eus/eu/web/psikologia/gradu-amaierako-lana>

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak									
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.									

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Banakako lanak % 60
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Gradu Amaierako Lanaren amaierako ebaluazioan, kontuan hartuko dira aurkeztutako lan idatzia (% 60) eta haren ahozko defentsa (% 40).

GRALaren defentsa hiru alditan egin daiteke, eta ikasleak horietako bat aukeratu beharko du lana defendatzeko. Defentsak Otsailan, Ekainean edo Irailean egin daitezke. Ikusi Fakultateko web orria: <https://www.ehu.eus/documents/1358119/7534385/GRAL-Deialdiak-2017-2018.pdf>

Ikusi Fakultateko web orria:

<https://www.ehu.eus/documents/1358119/7534385/GRAL-Deialdiak-2017-2018.pdf>

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

American Psychological Association (2010). Publication manual of the American Psychological Association (6th ed.). Washington: American Psychological Association.

Deontologikoa Kodea:

www.cop.es/pdf/Codigo-Deontologico-Consejo-Adaptacion-Ley-Omnibus.pdf Gizakiekin lotutako ikerketarako Etika Batzordea:

http://www.ikerkuntza.ehu.es/p273-sheticct/eu/contenidos/informacion/vri_ceish/eu_vri_eti/comite.html

Normativa sobre la elaboración y defensa del trabajo fin de grado en la Universidad del País Vasco (BOPV nº 119. 19-6-2012).

Reglamento sobre la elaboración y defensa del trabajo fin de grado en Psicología (UPV/EHU). (Acuerdos de Junta de Facultad 27-6-2012).

Gehiago sakontzeko bibliografia Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK